

UNITATEA	GIZARTE ZERBITZUAK ETA OSASUNA SAILA
XEDEA	BAZKIDE KUOTA
ORDEZKARIA	
TITULARRA	EUSKAL FONDOA G48772487

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna saileko zinegotzi delegatu Kristina Pelaez Errazkinena, bat etorrira Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

IKUSIRIK

LEHENA.- 2025eko apirilaren 25ean erregistro bidez jaso du Tolosako Udalak Euskal Fondoaren komunikazioa XXIX. Batzar Orokorraren Bilkuraren aktaren eranskinarekin. Batzar Orokorrean onartutako erabakien harira, 2025. urterako bazkideetza kuota kopuruarekin eranskina, eta 2025 urterako adostutako lankidetzaren egitasmoen zerrenda ere erantsi dira, eta gogora ekarri da Euskal Fondoaren jardueren finantzaketara bazkideek gutxienez bere lankidetzarako dirulaguntzen %10a bideratu behar izana jasotzen duen ebazpena indarrean dela.

BIGARRENA.- Tolosako Udalari ordaintzea dagokion bazkideetza kuota ondokoa da: 3.736,43 €.

KONTUAN HARTURIK

Prozeduraren araudia:

- Tolosako udaleko dirulaguntzen ordenantza orokorra (GAO 2024ko maiatzaren 9a, osteguna)

Gaiaren funtsa (azterketa):

EUSKAL FONDOA 1996. urtean sortu zen, Lankidetzaren Deszentralizaturako koordinazio eta laguntza tresna bezala.

Tolosako udalak, 2000 urteko irailaren 25ean egin zuen ohizko osoko Bilkuran, besteak beste erabaki zuen "Tolosako Udala Euskal Fondoaren Asociación de entidades locales vascas cooperantes-en sartzeari elkartearen osorik bezala, haren estatutuarekin sortzen diren eginbeharrak bereganatuz eta Estatutu horiek onartuz.

Esp. zk. 2025DO200025

2004ko martxoaren 22an ospatutako ohiko bilkuran erabaki zen elkarteko bazkide diren entitateek beren aurrekontuetan lankidetzarako aurreikusitako diruaren %10eko ekarpena egingo dutela gutxienez, EUSKAL FONDOAK antolatutako ekimenak burutzeko.

Elkarteak bide oparoa egin du nazioarteko lankidetzaren arloan, eta erakutsi du nahikoa ezagutza eta gaitasuna sorreran ezarritako helburuekin bat eginik funtzionamendu eraginkorra duen egitura egonkorra sortzeko.

Tolosako Udalak elkarte honen bazkide izatea erabaki zuenetik eta bazkidetza hori bideratu zenetik erabatekoa izan da Tolosako Udalaren eta Euskal Fondoaren arteko lankidetzak. Hain zuzen ere, Tolosako Udalak nazioarteko lankidetzarekiko duen konpromiso eta erantzukizuna bideratzeko tresna egokia eta eraginkorra baita Euskal Fonda.

39/2015 Legearen 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera, titularrak administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna duela eta baldintzak betetzen dituela interesdun izaera onar dakion.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, zinegotzi delegatu honek honako hau

E B A Z T E N D U

LEHENA.- Onartzea eta ordaintzea Euskal Fonda-Asociación de entidades locales vascas kooperantes elkarteari 2025 urteko bazkidetza-kuota, 3.736,43 €-koa, 3035 0075 47 0750027856 kontu korrontean, aldi bakar batean eta modu aurreratuan, 2025eko udal aurrekontuko 0500.481.10.23100 partidaren kargura.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatezaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berriazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze-errekurtsioari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake, edozein unetan. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Esp. zk. 2025DO200025

Interesdunari legearen arabera jakinaraz bekio.

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ZINEGOTZI DELEGATUA

UDAL IDAZKARIA

Kristina Pelaez Errazkin

Sara Berasategui Fuertes



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025DO200025-Decreto/Decreto (EUSKAL FONDOA ASOCIACION DE ENTIDADES LOC,